

Huts-zuzenketa, ebazpen honen oinarrietan ezarria: Ebazpena, 2024ko urtarrilaren 15ekoa, Unibasqeko Zuzendariarena, Euskal Herriko Unibertsitateko lan kontratudun irakasleen ikerketa-jarduera ebaluatzeko eskabideak aurkezteko prozedura eta epea ezartzen dituena, Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseiluaren 2023ko abenduaren 11ko erabakiaren bidez onartua.

Akats material bat atzeman da Unibasqeko Zuzendariaren 2024ko urtarrilaren 15eko Ebazpenean, zeinaren bidez ezartzen baitira Euskal Herriko Unibertsitateko irakasle lan-kontratudunen ikerketa-jarduera ebaluatzeko eskabideak aurkezteko prozedura eta epea. Ebazpen hori Unibasq-Euskal Unibertsitate Sistemaren Kalitate Agentziaren Gobernu Kontseiluaren 2023ko abenduaren 11ko erabakiaren bidez onartu zen; bosgarren oinarriko 1. puntuari baino ez dio eragiten zuzenketa. Administrazio Publikoen Administrazio Prozedura Erkidearen urriaren 1eko 39/2015 Legearen 109.2 artikuluan ezarritakoari jarraituz, honako hau ezabatzen da:

“Ebaluatzeko eskatzen diren urteetan argitaratuta egon behar dira aurkeztutako ekarpenak. Ez dira aintzat hartuko urte horietan onartu diren, baina argitaratu ez diren argitalpenak.

Edizio digitala edo inprimatua duten aldizkari, liburu eta bestelako obretan, ekarpenak bakarrik hartuko dira argitaratutzat inprimatuta daudenean, hau da, bigarren formatuan daudenean.”

Gainerako atala berdin mantentzen da.

Vitoria-Gasteizen, 2024ko urtarrilaren 22an.

Iñaki Heras Saizarbitoria
Unibasqeko Zuzendaria

